



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abegi harrera	Leku hoberenak utziko zizkieten karabanako kideei, hala agintzen baitzuen abegi onaren legeak.	127
ahaleginak eta bi egin asko saiatu	Ahaleginak eta bi egin nituen arrear, ez nuen batere emaitzarik eskuratzen.	8
ahalik eta ...-en albait ...-en	— Ahalik eta azkarren itzuli nahi dut nire ardiengana.	80
ahapeka xuxurlaka, isilean	...nire ordutegiak ere badakizkite", esan zuen ahapeka .	18
aintzatetsi onartu, onetsi	Mundu osoan inork aintzatesten ez zuen erregea artzainek onartu eta aintzatetsi zuten beste inork baino lehenago.	101
aitagure oinarrizko otoitz kristaua	Ez zuen nahi eskua dardarka hasterik eta atsoa bere izuaz ohartzetik. Aitagure bat errezatu zuen, isilpean.	31
aitzakia estakurua	Bat-bateko aitzakiaren bat asmatu eta erantzun gabe utzi zuen mutilak galdera.	21
akiturik neka-neka eginda, sats eginda	Eta, zeharo akiturik , loak hartu zuen.	66
Alkimia praktika erdi zientifiko-filosofik	Bere ikasgaiak nireganatzen hasi orduko Alkimia ikasteari ekin nion berriro, neure kasa.	9
amarru maltzurkeria, tranpa	Amarru ederra, pentsatu zuen mutilak. Baina arriskatzea pentsatu zuen.	31
aneka zakutoa	Ez zeukan anekaren zuloa josteko asmorik: nahi zuten guztietan egin ahal zuten ihes harriek handik.	65
antzeman nabaritu, igarri	Esplikazio bakarra antzematen zion jokabide hari...	125
apetatsu gurari asko dituen, kapritxosoa	Emakume apetatsua baita basamortua, eta batzuetan zoratu egiten ditu gizonak.	103
apo apatxa, kaskoa	Basamortuan, ordea, betiereko haizea, isiltasuna eta animalien apoen hotsa, ez zegoen besterik.	105
araztu garbitu, xahutu	Bizitza osoa laborategietan metalak arazten eman zuten gizonak ziren alkimistak.	115
ardo zahagi ardotarako larruzko poltsa	Liburua trukatzetik izango zuen han, beste bat handiagoa eskuratuz; ardo zahagia betetzetik ere bai, edo bizarra eta ilea moztetik ere.	29
argizagi astroa, izarra...	Oztopoak gainditutakoan, beti jartzen zen karabanaren branka oasisako bidea erakusten zuen argizagiari begira.	107
arras zeharo, erabat	Txunditurik utzi zuen ingelesa dendaren inguruko kontakizunak, mutila bertaratuz geroztik negozioa arras hobetu izanak alegia.	112
arrimu babesa	Elkarren arrimura biltzen ziren batzuetan karabanak, gauean.	110
artean orainik (leh.), orduan	...70eko hamarkadaren hasiera—, eta ez zegoen artean argitalpen seriorik Alkimiari buruz.	7
artegi ardien esparrua, ardi gorta	Hirisarreran zeuden ardiak, lagun berri baten artegan .	35
astigar zuhaitz mota	Sabaia aspaldi behera etorria zen, astigar zuri handi bat hazi zen ...	17
atalase sarrerako gela	Atalasean eseri zen ondoren, bakar-bakarrik, nargilea erretzera.	89
atezu larri, tentsioan	Aztoratuta zegoen, atezu , bai baitzekien egia zioela agureak.	47
atxikimendu loturazko erlazioa	...ez zuten ulertzen artzainek beren ardienganako atxikimendu handia izaten zutela...	48




atzeman oratu, hartu, harrapatu	Sartu zuen eskua zakutoan, eta harrietako bat ia atzemanik zeukala biak joan zitzaizkion oihalaren zulo batetik.	65
azienda aberea	Ez zen otsorik lurralde hartan, baina azienda batek ihes egin zion halako gau batean...	17
aztoratu asaldatu, larritu, estutu	Ez zait gustatzen inork nire ardiak aztoratzerik ; beldurra diote jende arrotzari.	32
bailiren izango balira bezala	Gero, inurri-langile saldo bat bailiren , txosnak desmuntatu eta joan egin ziren.	62
barau egite jan eta edan gabe egotea erabaki	Hauek dira gainerakoak: egunean bost aldiz otoitz egitea, barau egitea Ramadan hilean, behartsuei laguntzea.	80
basamortu desertua	Gogoratu berria zuen Merkatariaaren hornitzaileetako batek basamortua zeharkatzen zuten karabanetan ekartzen zituela beirakiak.	95
bazar merkatu pertsa	Jada ez zegoen ez bazarrik , ez merkatarien arteko eztabaidarik, ez minareteetara igo eta abesten zuen gizonik...	74
bederen behintzat	Handia zen mundua, agortezina; eta apur bat bederen gida zezaten utziko balie ardiei...	28
berekiko bere artean, bere buruari	"Fedegabeen gauzak", esan zuen berekiko .	57
bermatu ziurtatu	Mundu hau existitze hutsak bermatzen du badela nonbait hau baino mundu perfektuagorik..	174
bertsuko ia bereko, ia berdineko	Honengandik urruti zegoen mutila, bere adin bertsuko beste bost gazterekin karpa berean jarri baitzuten.	128
bidaida bidelaguna	Bidaidearengana hurbildu zuen bere zaldia mutilak.	213
bide berriak jorratu esploratu, bide-urratzaile izan	"Arazoa da eurak ez direla konturatzen egunero bide berriak jorratzen ari direla.	29
bidegabe zuzentasunaren kontra	Merkataria gizakume egoskorra izan arren, ez zuen bidegabe jokatzeko...	77
birritan bi bider, bi aldiz	Kate haren eraginez egin zen artzain, birritan izan zuen amets bera...	104
branka aurrealdea	Oztopoak gainditutakoan, beti jartzen zen karabanaren branka oasisako bidea erakusten zuen argizagiari begira.	107
branka aurrealdea (itsasontziena)	Oztopoak gainditutakoan, beti jartzen zen karabanaren branka oasisako bidea erakusten zuen argizagiari begira.	107
burrunba harrabotsa, astrapala	Ikaragarritzko jende- burrunba zegoen aretoan...	103
buru-belarri jo eta ke, gogotsu	Horrenbestez, bizitza urte askoan luzatzeko gai den edariareen berri izan nuenean, hori egiteari ekin nion buru-belarri .	7
dagoeneko jadanik, jada, honezkero	Dagoeneko beste artzain bati ohituak izango dira, eta ahaztu egingo ninduten.	106
datil palmondoaren fruitua	...bazekien jendeak zer iragartzen zuen: emakumeak, ura, palmondoak eta datilak .	108
deitoragarri penazkoa, tamalgarria	Lotsaturik, komentukideen begirada deitoragarrien zama nabaritzen zuelarik...	11
deus ez ezer ez	"Mutilak, lotsaturik, deus ez zuela ikusi aitortu zion.	53
diosal egin agur egin	Gazte arabiar bat –maletaz kargatua hura ere– sartu zen ingelesa zegoen leku hartara eta diosal egin zion.	98
djin basamortuko izaki mitologikoa	Munduko sekretuak dakizkien gizona da. Basamortuko djinekin hitz egiten du.	133




dunbots zarata handia	Dunbotsa entzun zuen batbatean, eta izugarrizko haizeerauntsi batek lurrera bota zuen.	152
eden pozoia	Naja motako sugea zen, eta haren edenak minutu gutxiren buruan akabatzen zuen edonor.	164
egoskor setatsua, tematia	Merkataria gizakume egoskorra izan arren, ez zuen bidegabe jokutzen...	77
egunsenti goiztiria	...lagun izango zituen ardiak, egun guztiak aurrekoaren berdinak izan arren –ordu luzeak igaroz egunsentitik ilunabarrera arte–...	23
emeki leunki, goxotasunez	Beraz, gero eta emekiago hitz egiten dugu guk bihotzok...	180
erakusleiho eskarapatea, denden leiho handi	...mutil atzerritar bat geratu zen bere erakusleihoaren parean.	71
errainu argi-izpia	Dunari ere argi egiten zion ilbeteak, itzal eta errainu bitxiak sortaraziz.	218
errezel oihalezko pieza, kortina	Koloretako plastikozko errezel batek bereizten zuen gela hura egongelatik.	30
erruz ugari, asko	...gauza horiek sekretuak zirelako, erruz azaltzen baitzizkien Jaungoikoak bere sekretuak izaki guztiei.	125
esnatu itzartu, iratzarri	...lotan zeuden ardiak esnatzeari ekin nion.	18
espingarda eskopeta luzea	...baita gerrian ezpatak eta bizkarrean espingardak zeramatzen hainbat gizon ere.	103
eszeptiko fidatu gabe, onartu gabe	Nire bizitzako hurrengo sei urteak mistika-eremuko orekiko nahiko jarrera eszeptikoan igaro nituen.	8
etxadi auzoa, etxe multzoa	...baina gehiago nekatzen omen zen Tangerangren, etxadiren batzuk haratago larru bila joan behar izaten zuenean.	81
ezjakina izan ezikasias, eskolagabea	Seguru atsoa ijitoa zela. Eta zeharo ezjakinak dira ijitoak.	33
ezpuru garbia ez dena	Sufre ezpurua bereizi beharra daukat.	139
fereka ukitu leuna, laztana	Eta, halako batean, justu ehizakiaren ferekak nire harearen gainean sentitzeko zorian nintzenean...	198
flasko potetxoa	...Egintza Handia ez da etortzen beti arrautza edo likidodun flasko itxuraz jantzia, baina denok murgil gaitetzeke (...) Munduaren Ariman.	10
galda eguzki izpi beroa, bero handia	Bazekien ordu batzuk geroago, eguzki galdatan , beroegi egingo zuela...	24
ganbara pipiak jo burutik egin, zoratu	— Ganbara pipiak jotzen hasita al zaude?	182
gauza izan gai izan, kapaza izan	— Ez nekien nik artzainak liburuak irakurtzeko gauza zirenik —esan zuen bere ondoan emakume ahots batek.	20
gogaiturik nazkaturik, higuindurik	Gogaiturik zeukan monjea gerrak.	210
gogobeterik aseta	Beste batzuetan aski gogobeterik zegoela esaten zion mutilari...	177
gotorleku ondo babesturiko lekua	Tarifa hirixkaren gainaldean bada mairuek egindako gotorleku zahar bat...	55
gurari apeta, nahia	Edozein gurari duzula ere, hemen naukazu hori betearazteko prest.	214
gurtu ohoratu, laudatu	Eta horrela, fraiderik fraide, gurtu zituzten denek Ama Birjina eta Jesus Haurra.	




haraindi beste aldean, harago	...erdi suntsitutako sabaiaren zuloaz haraindi izarrak ikusten ziren.	223
harat-honat joan-etorri, bueltaka	Presarik gabe, harat-honat ibili zen plazan. Hasiak ziren saltzaileak beren txosnak eraikitzen, eta gozogile bati lagundu zion berarena altxatzen.	67
harrabots astrapala, zarata handia	Zin-egite hutsak iraun ohi duena baino gehiago luzatu zen harrabotsa , zeruari babes eske otoika ere ari baitzen jendea.	104
haserretu sumindu, muturtu	Eurek nahi bezalakoak bilakatzen ez bagara, berriz, haserretu egiten dira.	35
hasperen egin arnasbehera, suspiratu	—Azkarrak dira ijitoak — egin zuen hasperen agureak—.	46
hausnartu gogoetatu	"Ardien eta altxorraren artean erabaki beharra daukat", hausnartzen zuen mutilak.	49
herrestari arrastaka edo narras dabilena	Mendian zeuden han urrunean, haitzak, dunak, landare herrestariak ...	197
hilotz gorpua	Ordu erdiren buruan lauhun eta laurogeita hemeretzi hilotz zeuden lurtean.	156
hiltzear hiltzeko zorian	—Eta zertarako beharko zenuke hori guztia hiltzear bazeunde?	191
hirusta hiru hostoko belarra	Kilkerrak, haurdunaldiak, sugandilak eta lau hostodun hirustak bezala.	51
hitzarmen bat etortzea, paktua	Oasi barruan inork ezin duela armarik eraman soinean dioen hitzarmena hautsi egingo dugu bihar.	150
honela moduz honelatsu	—Arabiar jaio behar da ongi ulertzeko (...) Baina honela moduz itzuliko genuke: "Idatzirik dago"	86
hornitzaile salgaia dakarrena	Gogoratu berria zuen Merkatariairen hornitzaileetako batek basamortua zeharkatzen zuten karabanetan ekartzen zituela beirakiak.	95
hunkitu zirrara eragin	Horregatik, gehien hunkitu zuten liburuatalak irakurtzen zizkien batzuetan...	18
igurtzi indarrez ferekatu, marruskatu	Mutilari begiratu zion agureak, eta bi eskuekin igurtziz keinu arraro batzuk egin zizkion buruan.	54
ihardetsi erantzun, arrapostu	...emakumeak eta lurak ezagutu nahi ditut — ihardetsi zion mutilak—.	26
ikastun asko ikasten duena	Oraingoan ere aurreko ikastuna bezain trebea izatea espero zuen.	125
ilunabar iluntzea, ilundea	...lagun izango zituen ardiak, egun guztiak aurrekoaren berdinak izan arren —ordu luzeak igaroz egunsentitik ilunabarrera arte—...	23
isilpean ahapeka, xuxurlaka	Ez zuen nahi eskua dardarka hasterik eta atsoa bere izuaz ohartzetik. Aitagure bat errezatu zuen, isilpean .	31
iskanbila istilua, zalaparta	...egun hartan dena zen iskanbila eta oihu, haur eta negar, animalien irrintzi...	105
islatu irudia erreflejatu	...nire ertzetan etzaten zen bakoitzean haren begien barrenean ikusten nuelako islatua neure edertasuna".	16
isuri bota, jausi (likidoak)	—Ibiltzen hasi orduko, eraman ezazu zeurekin honako koilara hau, olioia isurtzen utzi gabe.	53
itzel handia	...bere barren-barreneko zerbait eskaintzeko premia itzela sentitzen zuen.	11
itzulmin itzultzeko gogo	"Ez dira jada nire ardiak", esan zion bere buruari, itzulminik sentitu gabe,	106
jalki altxatu, harrotu	...hautsa jalkitzen hasi zenean ordura arte inoiz sentitu gabeko izua nabaritu zuen...	152



jaregin askatu, libratu	Uste zuten metala urte luzez egosten edukiz gero, jaregin egingo zituela bere-bereak zituen propietateak...	115
korapilatsu nahasia, konplexua	Gainera, oso korapilatsuak ziren pertsonaien izenak.	36
krispeta arto errea (palomita)	Krispeta -saltzaile bat seinalatu zuen agureak. Plazaren izkina batean zegoen, bere orgatxo gorriarekin.	44
kuraia adorea, kemena	...ardiak utzi eta alde egiteko izan zuen kuraia ...	183
lantegi zeregina, ataza, eginkizuna	...amets bat izan da –esan zuen atsoak–. Interpreta dezaket, baina oso lantegi zaila da.	33
lauso zehaztasun gabea, iluna, difumin	...zera galdetu nion, ea zergatik zen hain lauso eta konplexua alkimisten hizkera.	9
legenda kondaira, elezaharra	Bazuen Alkimistak Nartzisoren legendaren berri: egunero aintzira batean bere edertasuna behatzera joaten zen mutil ederraren istorioa.	15
lehenetsi aukeratu, lehentasuna eman	Gazte nintzela, denda hau martxan jartzeko diru pixka bat eskuratzea lehenetsi nuen.	80
liluraturik zeharo miretsita, txundituta	... liluraturik geratuko ziren gonbidatuak kikara hain eder eta baliotsuak ikustean.	87
magal mazela, hegala	...apenas geratu ziren denda bakan batzuk mendiaren magalean .	70
mako gako itxurakoa	Zelari itsatsia zekarren zorrotik kanpora atera zuen bere ezpatatzar makoa ...	152
marmario marmarra, zurrumurrua	Neskaren ahotsa entzuten zuen mutilak, eta datilondoan hostoetan haizeak eragiten zuen marmarioa baino ederragoa iruditzen zitzaion.	137
martingala azpijokoa, engainua	Haren trikimailu eta martingalez jabetu zen eta, azkenik, zen bezalakoxea onartu zuen.	178
mehar argala	Behi gizen eta meharrei buruz faraoiak izan zuen amets hari esker...	149
miatu arakatu	—Zuek miatu beharra daukagu, armarik badaramazuen jakitearren...	182
minarete meskiten dorrea	Jada ez zegoen ez bazarrrik, ez merkatarien arteko eztabaidarik, ez minareteetara igo eta abesten zuen gizonik...	74
mistika erlijioaren eraginpeko egoera	Nire bizitzako hurrengo sei urteak mistika -eremuko ororekiko nahiko jarrera eszeptikoan igaro nituen.	8
murgildu urperatu, must egin	...Egintza Handia ez da etortzen beti arrautza edo likidodun flasko itxuraz jantzia, baina denok murgil gaitezke (...) Munduaren Ariman.	10
nargile erretzeko pipa berezia	Atalasean eseri zen ondoren, bakarbakarrrik, nargilea erretzera.	-89
narguil pipa gisako tramankulua	Sugar gehiago jarri zituen agureak narguilean , eta zupada luzea egin zuen ondoren.	84
neure kasa neure kontura	Bere ikasgaiak nireganatzen hasi orduko Alkimia ikasteari ekin nion berriro, neure kasa .	9
nondik norako nolakoa, ze motatakoa	—Egipton dago Al-Fayoum –erantzun zuen nagusiak–. Nondik norako arabiarra zara zu?	102
orduko bezain laster / baino lehen	—Gure soroak eta gure emakumeak ikusi orduko betiko hemen bizi nahi luketela esan ohi dute gizon horiek –jarraitu zuen aitak.	26
orgatxo gurdi txikia, karretilla	Krispeta-saltzaile bat seinalatu zuen agureak. Plazaren izkina batean zegoen, bere orgatxo gorriarekin.	44
parte onekoa ez izan mesfidatzekoa, seinale txarra	Eliza, beharbada, ez zen parte onekoa , astigar zuri hura barruan zuela...	24



patu zoria	...horretaz mintzo da liburu hau ere –jarraitu zuen agureak–. Beren patua hautatzeko gizakien ezintasunez.	37
pegar buztinezko ontzi handia	...ur gezadun lakua malako gaziz betetako pegarra bihurtua zen.	15
pirritan joan bilin-bolaka, labainduz	Harri bihurtu eta pirritan joan zen harribitxi-bilatzailearen oinetara.	45
saihestu ekidin, itzuri egin	...eta ardi mozketa bere aurrean egin zezaten nahi izaten zuen, faltsifikazioak saihestearren -edo.	19
saldo aldra, taldea	Gero, inurri-langile saldo bat bailiren, txosnak desmuntatu eta joan egin ziren.	62
sarraskitu birrintu, sakailatu	"Munstro bilakatu eta nire ardiak banan-banan hiltzea erabakiko banu gaur, ia artalde osoa sarraskitu arte ez lirakeke ohartuko eurak"...	23
sobera oso	...hori pentsatze hutsa sobera erakargarria zen Magian hasi berria zen edonorentzat.	7
soinean aldean	Oasi barruan inork ezin duela armarik eraman soinean dioen hitzarmena hautsi egingo dugu bihar.	150
solasean aritu hizketan, berba egiten	Ia hiri osoa ere ikusten zen han goitik, baita agurearekin solasean aritutako plaza ere.	48
sorterri jaiolekua, aberria	Bitartean, azoka hutsik zegoen; eta mutila, sorterri urruti.	63
sos dirua, xentimoa, txakurrandia	Lur arrotz hartara ailegatzea, lapur batekin topo egitea eta sosik ere gastatu gabe artaldea bikoiztea...	83
supituki ustekabea, bat-batean	Supituki , geratu egin zen, eta kontu handiz makurtu zen.	163
tamala pena, lastima	" Tamala gero nire izena ahortzi egingo duela", pentsatu zuen.	56
telepatia buruarekin pentsamenduak igort	Halako gau batean, telepatia saio nekagarri baten ostean hizketan ari ginela...	9
tiara buruko apaingarria	Urdinez jantzitako gerlariak ziren, eta tiara beltz bana zeramatzen beren durbanteen gainean.	188
trikimailu azpijokoa, martingala	Haren trikimailu eta martingalez jabetu zen eta, azkenik, zen bezalakoxea onartu zuen.	178
txanbil sabel zabaleko ontzia	Txanbil bat ireki eta kolore gorriko edari bat isuri zuen Alkimistak mutilaren edalontzian.	160
txepel ganorabakoa, txotxoloa	Liburua potoloa da, baina zeharo txepela .	37
txosna dendatxo probisionala	Presarik gabe, harat-honat ibili zen plazan. Hasiak ziren saltzaileak beren txosnak eraikitzen, eta gozogile bati lagundu zion berarena altxatzen.	67
txunditurik zur eta lur, harrituta	Eta guztietan txunditurik geratzen zen neska artzainak ardi-mozketa atzetik aurrera egin behar dela azaltzen zionean.	36
uhar ur korronte arrea	Uharrek ateratzen dituzte altxorrek lurpetik, eta uholde beroiek sartzen dituzte lur azpian.	45
usta zaldia zigortzeko makilatxoa	Lehenxeago ezpatari eutsi zion esku berberak usta hartu zuen oraingoan.	155
uzkurtu bere baitan bildu	Txikiagotu egin zitzaion bihotza bat-batean, bularra uzkurtu balitzaio legez.	61
xentimo txakurrandi (10), txakurtxiki (5)	Xentimorik ere ez zeukan poltsikoan, baina bazeukan fedea bizitzan.	67
xume apala, umila	Nahi izanez gero, bazeukan orain oasira itzultzerik, Fatimarekin ezkontzerik eta artzain xume gisa bizitzerik	218



zaildu eskarmentu handikoa	Ez zuen ezagutzen, artean, gizon hura, baina bere begi zaildu ek ikusi orduko ezagutuko zuten.	125
zalantzati dudakor	Artean ere zalantzati zebilen bere erabakia zela eta.	99
zeharo guztiz, erabat	Seguru atsoa ijitoa zela. Eta zeharo ezjakinak dira ijitoak.	33
zelatatu ezkutuan so egin	"Aski da laguna zelatatzeaz " , esan zion bere buruari.	61
zeruertz zerumuga, hodeiartza	Gorritz tindatu zen zeruertza , eta eguzkia atera zen segidan.	28
zingiratsu ur putzu askoko lurraldea	Jokabide horrek. eta Magiaren eremu zingiratsuetara egin nituen joan-etorri batzuek, egia bilakatu zuten esaera zaharra...	8
zirauen irauten zuen	Bizirik zirauen artean gogo hark...	27
ziztu batean atoan, berehalaxe	Ziztu batean erretiratu zituen eskuak artzainak.	31
zohardura argitasuna	Ilargizarra zeruan eta arroken zohardura (...) besterik ez zen antzematen.	163
zotz egin zozketa egin	Gidariren bat gaixorik jartzen edo hiltzen bazen, zotz eginez hautatzen zuten gameluzainek haren ordezkoko gidaria.	107